

**784/2025 EBAZPENA, martxoaren 13koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Aparatu Digestiboko Zerbitzu Sanitarioko buru hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.**

#### AURREKARIAK:

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearen urtarrilaren 28ko 437/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Aparatu Digestiboko Zerbitzu Sanitarioko buru izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko otsailaren 11ko EHAA 28 zk. eta 2025eko otsailaren 17ko BOE 41 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko martxoaren 10ean amaitu zen.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,


#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Aparatu Digestiboko Zerbitzu Sanitarioko buru izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2025eko martxoaren 13a



EZKERRALDE-ENKARTERRI-CRUCES ESI  
OSI EZKERRALDEA ENKARTERRI-CRUCES  
GERENTZIA  
CFR/N.º 0017

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendari gerentea,  
María Luz Marqués González

ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI

APARATU DIGESTIBOKO ZERBITZUBURU SANITARIOA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Onartuak:

D. Ignacio Casado Morentín jn.

Baztertuak:

Inor ez